

euskalerritik
begira...

PRESO POLITIKOAK

Behar bat: preso politikoaren estatutua.

Preso politikoek tratatu berezi bat behar dute. Ba da hortarako arrazoirik asko. Artikulu batetan den denak ezin aipa ditezkeenez gero, itxurazkoena iduritzen zaidan argumentu bat emanen dut.

Gaurregun bizirik dagoen lehen artikulutik atera ditekenez, presondegiatako instituzioak zerbitutarako bai eta hortarako dira batez ere: presoaren on-bideratzeko, hots «reformatzeko».

Dena hori, iritzi hori aski sana da, ba du zentzurik, zuzena da, eta XIXgarren mendeko gure «korreozionalistak» iritzi berekoak ziran. Halaz guziz ere, lege hori preso politikoek aplikatzen zaienean teoriz zuzenaren kontrakoa da, eta praktikaz ezertarako balio ez duena; bestalde, ez bidez ahaztu dinamika sozialari datozkiokeen ondoren kaltetarriak.

Gaurregun, burugabekeria bat iduritzen zaigu 1940 garren urtean legearen zarpigarren artikuluan eman zan agindua: Lege hau zabaldu aurretik «...Masoneria eta Komunismo erakundeetan sarturik zebiltzan guztiek ideia horiez beste egin behar zuten, retratatu egin behar zuten». Baina, egia esan, preso politikoaren «reforma», retratazioaz besterik, zer gehiago da?

Pertsonaren dinitatearen kontra ez ezik, presoari ematen zalon korrezio tratatu horrekin, indarrak alferrik galtzen diela, dirudi. Izan ere, preso politiko batek, nola nahi ere, nekez baizik ez du utziko bere kontzientziaren muina alda dizaloten; preso politikoak alde aurretik zekien zer jokatzeko zuten: bere libertatea, eta dena esan, bere arazoak agintzen zionari jarraitu, beste onik etzuen bilatzen.

Preso politikoaren kontzientziak beste ezin egin baditeke beraz, lege horiek alferrik emanik daude agian; lege horretatik presoari kalte haundiak datozkioke, zoritxarrez.

Adibidez: Libertatea kendu zalon edozein presok du —reglamentuak galdogiten dituen zera batzuk bete ondoren— kondenaren lautasun bat libertate halamoduzkoan (libertad vigilada) pasatzeko eskubidea.

Preso politikoek, sistematikoki ukatzen zale eskubide hori. Bizitza profesionalak erakutsi didanez beste hau ere esan nezake: kartzelatik kanpora-gabe idukitzeko Patronato de Nuestra Señora de la Mercedek sarritan erabiltzen duen arazoia hau da:

«Presoak, libertatean, pertsona prestu baten bizitza egin deza-keela ez dirudi».

Guzti hori, pertsona politiko huts hutsik diranentzat erabiltzen da; barru eta kanpo, gizon zintzo izan diranentzat; kartzelan egon diran bitartean ezin eta hobeto bizi izan diranentzat; zaintzaileen us-tetan han egon diran bitartean okerrik egin ez tutenentzat eta maiz askotan sarituak izan diranentzat.

Itxura guztien arabera, esan horiek hau besterik ez dute adierazten: presoak ez dira «erreformatu-eraberritu» alegia.

Are okerrago: presondegiatako zerbitzuen reglamentua aldatu egin da, eta badirudi, preso bat bederak «erreforma» kontu hontan egin dituen aurrerapenak hobeto neurtzeko presoak grian gaitetik eta sakon sakonetik obserbatzeko sistema indibidual berezi bat sartu dela, baita pertsonarekiko tratatu berezi bat ere. Preso politikoek aurrerapenik eginen ez tutenaz gero, eta bestalde berrikuntza holer barne gelditzen baitira, badirudi, libertate kondizionalaz ez direla sekula aprobetxatuko.

Preso komunek eta politikoek ez dute beraz, azken finean, kondena berdina: laurden batez luzeagoa ditek politikoen kondena.

Gose huelgak eta beste eginez, preson degietan preso politikoek egin dituzten zera guzti horiek ezagutu ondoren, denok dakigu kartzelatan aspaldidanik dagoen egoera gaiztoa.

Harritzekoa ere bada, baina honelako jokabideez etzuten preso politikoek beren on materialik bilatzen, bere pertsonen dinitatearen kontra zeuden egoera eta zirkunstantzi malapartatu horiez beste egin zezaten nahi zuten bakar bakarrik.

Nere bizitza profesionalan, aspaldidanik ezagutu dudana protesta hau da: ez ditzatela meztara behartu, desfileak galerazi ditzatela eta honelakoak. Orain gutxi, oso zabalduak dagoen eskabidea beste hau da: presoek tarterikoekin dituzten hizketaldiak ez ditzatela zinta magnetofonoaz har.

Han eta hemen banazka egin diran protesta hohriek, hor azpian, ondo sakanean izkutatuturki dauden beste zenbait gaitzen seiñale besterik ez bide dira. Protesta horien azken jomuga hau edo da: preso politikoaren joerari ez dagokion tratatu baten kontrako protesta alegia. Beste hitz batez: erreforma horiek direla medio ez ote dan preso politikoaren libertatea errespetatzen.

Gaitzaren sustraia bera botikaz sendatu arte gaixoa sendatzen eta osatzen eztan bezala, era berean, arik eta preso politikoek dagokien estatutu berri bat egiaz eta benaz egin arte, ezta lehen esan dugun politikoaren gaitza ere bere onera etorriko.

Cuadernos para el diálogo. Abenduak 1969.

«Una necesidad: el estatuto del preso político» izenaz Antonio Ratok egin zuen artikulua baliatu gera euskerazko hau moldatzeko. S. Z.

ABENDUAK 28 ERRUGABEREN EGUNA

Berri bakarra Euskalerrian: Eriotz-zigorra, bederatzi aldiz alajaina, merezi dutela E.T.A.ko sei euskaldunek erabaki du Burgosko epai-mahaiak. Inork espero etzuzana. Fiskalak bere garaian eskatu zituanak baiño zigor gogorragoak. Ona emen sentenziak zer erabaki zuan Burgosen auzipetuentzat:

ARANTXA ARRUTI:

Barkamena.

JOZU ABRISKETA:

Bandidajeagatik, 25 urtetako espetxea.

Armeekin lapurketa egiteagatik, 25 urtetakoa.

Terrorismoagatik, 12 urte ta egun batekoa.

ITZIAR AIZPURUA:

Rebelioagatik, 15 urtetako espetxea.

VIKTOR ARANA:


Militar-rebelioagatik, 30 urtetako espetxea.

Terrorismoagatik, 30 urtetakoa.

Baimenik gabe armak eukitzeagatik, 10 urtetakoa.

JULEN KALZADA:

Militar-rebelioagatik, 12 urte ta egun bateko espetxea.




XABIER IZKO
eriotz-zigorra, bi aldiz



JOSE MARIA DORRONSORO
eriotz-zigorra



JON GOROSTIDI
eriotz-zigorra, bi aldiz



EDUARDO IRIARTE
eriotz-zigorra, bi aldiz

astez aste



MARIO ONAINDIA
eriotz-zigorra



XABIER LERENA
eriotz-zigorra



JOSE MARIA DORRONSORO
eriotz-zigorra

JOSE MARIA DORRONSORO:

Gizon-iltzeagatik, eriotz-zigorra.

JONE DORRONSORO:

Bandidajeagatik, 30 urtetako espetxea.

Terrorismoagatik, 20 urtetakoa.

JON ETXABE:

Bandidajeagatik, 30 urtetako espetxea.

Terrorismoagatik, 20 urtetakoa.

JON GOROSTIDI:

Gizon-iltzeagatik, eriotz-zigorra.
Bandidajeagatik, eriotz-zigorra.
Terrorismoagatik, 30 urtetako espetxea.

ENRIKE GESALAGA:

Bandidajeagatik, 20 urte ta egun bateko espetxea.
Terrorismoagatik, 30 urtetakoa.

XABIER IZKO:

Gizon-iltzeagatik, eriotz-zigorra.
Bandidajeagatik, eriotz-zigorra.
Armeekin lapurketa egiteagatik, 20 urte ta egun bateko espetxea.
Beste lapurketagatik, sei illabete-koa.

Autoa lapurtzeagatik, sei illabete-koa.

Autoaren matrikula aldatzeagatik, sei urtetakoa.

XABIER LARENA:

Gizon-iltzeagatik, eriotz-zigorra.
Bandidajeagatik, 30 urtetako espetxea.

MARIO ONAINDIA:

Gizon-iltzeagatik, eriotz-zigorra.
Bandidajeagatik, 30 urtetako espetxea.

Terrorismoagatik, 21 urte ta egun batekoa.

GREGORIO LOPEZ:

Militar-rebelioagatik, 30 urtetako espetxea.

EDUARDO URIARTE:

Gizon-iltzeagatik, eriotz-zigorra.
Bandidajeagatik, eriotz-zigorra.
Terrorismoagatik, 30 urtetako espetxea.

ABENDUAK 30

URTE-MUGAREN BEZPERA

“Consejo de Ministros” eta “Consejo del Reino” delakoekin itzeginda gero, espainiako buru dan Francok, eriotz-zigorra barkatzea erabaki eta ala adierazi zuan bere urte-bukaerako itzaldian.

ETXEGARAY JAUNA,

MARSELLAKO GOTZAI-BURU

Roger Etxegaray jauna, 48 urtetakoa, 1966gna gero Frantziako Gotzai-Batzarraren idazkaria zana, Marsellako gotzai-buru egin dute.

Etxegaray jauna Espeleten jaio zan 1922gn. irailaren 25ean. Ustaritz eta Baionako apaizgaitegietan ikasi ondoren, Erromara joan zan “Gregoriana” deritzan unibersidadean lege kanonikoa ikastera. Bere doktor-tesisaren gaia “Katoliko diran eta elizara joaten ez diran gurasoen aurren bataioa”. 1947-gnean egin zan apaiz. Geroztik, Terrier gotzaiaren idazkaria izan zan (1949), Ekintza Katolikoaren Konsiliaria (1954), Bikario Jenerala (1960). Urrengo urtean Parisa deitu zuten orain arte egin duan lanera. 1969 gnean gotzai egin zuten eta Parisen bizi zan.



1.896

1.969

GIPUZKOA-KO PROBINTZI ERATETXEA

(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure citru boarretan gure
“PRESTAMEN SERRITZARITZA” (Servicio de Prestamos)
baila zaiten

Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Zure baserria erosteko edo obetzeko
Abera —azienda— erosteko edo obetzeko
Eskaintza irutunak obetzeko
Jahanduan jarri zaiten Demostrazio gure
13 ofizietan eta Probintziako 60 sukurrietan